Larrialdietarako telefono zerbitzua.

Prestazio mota: Bermatu gabekoa.

Baliabide mota: Arreta anbulatorioko zerbitzua.

Baliabidearen xedea: Prebentzio zerbitzua, zeinaren bitartez gailu elektroniko bat paratzen baita etxean, zentral batekin konektaturik, pertsonei segurtasuna emateko eta gerta daitezkeen larrialdiei behar diren baliabideak erabiliz erantzuteko.

Onuradunak: 65 urtetik gorakoak.

Jasotzeko baldintzak:

- Bakarrik bizitzea, 65 urtetik gorako pertsona batekin bizitzea edo bakarrik egotea ia egun osoan.
- Eskaera egin aurreko bi urteetan Nafarroan egiazki eta jarraian bizi izan dela frogatzea.

Zerbitzua irekita: Eguneko 24 orduetan, urteko egun guztietan.

Zerbitzuaren intentsitatea:

- Berehalako erantzuna eta, behar denean, baliabideak abiaraztea gailua aktibatzen den aldiro.
- Adeitasunezko dei bat hamabostean behin.

Ebazteko epea: Hiru hilabete.

Ordainketan parte hartzea: Bai.

Jarduteko eremua: Nafarroako Foru Komunitatea.